

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa

Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO B.H.I.	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	D.B.H.	Maila: <i>curso:</i>	2.maila
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	TEKNOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	TEKNOLOGIA		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	TEKNOLOGIARAKO KOMPETENTZIA		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	IRENE DOMÍNGUEZ	ikasturtea: <i>curso:</i>	2021-2022

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Teknologiako problema bat hautematea eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea . Horretarako, zenbait iturritan bilatuko du informazioa, eta egokia deritzona aukeratuko du, jakintza zientifiko eta teknologikoak aplikatuz,	1. Prozesu teknologiko baten etapak bereiztea eta deskribatzea, eta haietako bakoitzean egokiak diren lanak egitea. a. Produktu bat bideragarria den ala ez ezartzen du, eta hori egiteko gai da.

<p>inguruko egoerak konpondu edo hobetzeko. Horrela, testuingurua abiapuntu hartuta, ekintzailtza sustatuko da.</p> <p>2. Teknologiaren arloko objektuak eta sistemak modu metodikoan aztertzea, eta haien funtzionatzeko modua eta erabiltzeko eta kontrolatzeko modurik egokiena ulertzea, jakiteko zertarako egin diren eta erabiltzen diren, batetik, eta beste arlo batzuetan ere erabil daitekeen informazioa biltzeko, bestetik.</p> <p>3. Bide eta tresna egokien bidez, aurreikusitako edo emandako konponbide teknikoak irudikatzea eta simulatzea. Horretarako, egokiak diren ikurrak eta lexikoa erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko egokiak ere. Horren guztiaren bidez, konponbidearen bideragarritasuna eta gauzatzeko aukera aztertuko dira, eta haren buruzko informazioa trukatu.</p> <p>4. Inguruko elementu teknologikoak aise eta arduraz erabiltzea eta hobetzeko aukerak edo beste erabilera batzuk proposatzea, eta zenbait iturriratan kontrastatzea, beharrezkoa balitz. Horren helburua da irtenbidea ematea bizitzako ohiko jarduneko zenbait egoerari.</p> <p>5. Problema teknologiko bati konponbidea ematea, fisikoa zein birtuala, eta, beharrezkoa bada, kontrol-programa egitea, segurtasun- eta ergonomia-arauak kontuan hartuta. Atzeraeragina izango du, etengabe, egindakoa planteatutako baldintzetara egokitzeko.</p> <p>6. Lan-prozesua eta lortutako produktua ebaluatzea, eta eskuratutako ezaguera aintzat hartzea. Produktuaren kalitatea aztertzea eta proposatutako baldintzetarako ongi funtzionatzen duen</p>	<p>b. Deskribatzen du zergatik den beharrezkoa objektu edo sistema tekniko bat.</p> <p>c. Funtzeko informazioa bereizten du.</p> <p>d. Definitutako problema ebazteko oinarrizko informazioa biltzen du.</p> <p>e. Taldean erabakitzen du egin beharreko konponbide egokiena.</p> <p>f. Besteen ideiak aintzat hartzen ditu proiektu batean eman beharreko konponbidea aukeratzeko.</p> <p>g. Taldeak adierazitako konponbidea diseinatzen du, beharrezkoa den dokumentazioa erantsiz.</p> <p>h. Konponbidea e0mateko prozesuaren urrats nagusiak bereizten ditu.</p> <p>i. Zer baliabide behar diren ikusten du, bai eta nola banatu behar diren ardurak taldeko kideen artean.</p> <p>j. Eraikitako proiektua aurkezteko sistema bat ezartzen du, eta taldekideekin koordinatzen du.</p> <p>2. Zehaztutako problema batentzako konponbide egokia diseinatzea, ezagutza teknikoak eta zientifikoak egoki aplikatuz.</p> <p>a. Oinarrizko zirkuitu elektrikoak simulatzeko gai da. IKTko baliabideaz laguntzen da eta zirkuitu ezberdinen funtzionaltasuna hobetzen du konponbide teknikoaren bidez.</p> <p>b. Etxeetako zirkuitu funtzionalak bereizten ditu internetetik jasotako informazioa erabiliz.</p> <p>c. Zirkuitu sinpleak eta funtzionalak eraikitzeko beharrezko operadoreak aukeratzeko gai da.</p> <p>d. Paralelo serie zirkuituen funtzionamendua azaldu eta bereizteko gai da.</p> <p>e. Berariazko softwarearen eta ikur normalizatuaren bidez zirkuitu elektrikoaren simulazioa egiten du, eta espero den soluzioarekin lotzen ditu.</p>
---	--

begiratzea, eta **jarduerak natura ingurunean eta gizartean dituen ondorioak aztertzea**. Horren guztiaren helburua da problema teknologikoa konpondu den egiaztatzea eta **hobekuntza-ziklo baten proiektua** egin ahal izatea.

- f. Zuzen egiten ditu eragile oinarrizko zirkuitu elektrikoak, eta eskakizunak ongi betetzen dituztela egiaztatzen du.
- g. Polimetroaren erabilera zuzena egiten du eta eskatutako magnitudeak neurtzen ditu.
- h. Energia elektrikoa eta haren eraldaketak lotzen ditu beste energia-adierazpen batzuetan.

3. Ingurumenean eta gizakiarengan objektuak eta sistemak erabili eta botatzeak zer ondorio dituen aztertzea, eta ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko jarrera izatea.

- a. Objektu edo sistema tekniko bat ekoizteak, erabiltzeak eta botatzeak ingurumenean eta pertsonen ongizatean dakartzan eragin onak eta txarrak aztertzen ditu.
- b. Teknologiak bizi-kalitatean, lanaren bilakaera sozialean eta teknikoan, osasunean eta aisialdiko jardueretan izan duen eragina aztertzen du.
- c. Badaki beharrezkoa dela energia aurrezte eta hondakinak tratatzea.
- d. Gaur egungo ingurumen-egoerak dakartzan iraunkortasun-aukerei buruz hausnartzen du, bai eta zer ondorio dituen ere teknologia-jardueran.
- e. Energia elektrikoaren kontsumoa aztertu eta gure egunerokoan eragiten dituen ondorioak ateratzen ditu.

4. Eraginkortasunez eta disfuncziorik gabe moldatzea ikaskuntzarako erabiltzen duen ingurune birtualean.

- a. Nabigatzailearen mantentze-lanak eta garbiketa egiten ditu, eta pribatutasunari eta segurtasunari eusteko konfiguratzeko du.
- b. Oinarrizko softwarea modu seguruan instalatzen eta desinstalatzeko du.
- c. Google appseko baloiabideak ondo erabiltzen ditu.

- d. Norberarenak eta norberarekin partekatuta dokumentauk bereizten ditu
- e. Gailu elektronikoak egoki erabiltzen ditu informazio-iturri moduan eta edukiak sortzeko.
- f. Ikastetxeko jarduera didaktikoko ingurune birtualetan elkarreragiten du eta bere profila eta datuak babesten ditu.
- g. Fitxategi komunei dagokien informazio mota bereizten du eta haren neurria kalkulatzeko du.

5. Sistema, objektu edo programa bat osatzen duten elementuak identifikatzea, eta haien arteko lotura eta funtzionamendu globala azaltzea.

- a. Ongi aplikatzen du objektuen eta sistemen analisia egiteko metodoa.
- b. Sistema teknologiko bat osatzen duten elementuak bereizten ditu eta haren ezaugarriak justifikatzen ditu.
- c. Sistema baten funtzionamendua ondorioztatzen du, bai eta haren portaera erregulatzeko aukerak ere.
- d. Zirkuitu elektriko sinpleen osagaiak eta haien oinarriko funtzioa lotzen ditu.
- e. Programa bat osatzen duten atalak banakatzen ditu eta haren helburuarekin lotzen ditu.

6. Ikur eta lexiko egokiz dokumentatzea laneko etapak, eta prozesu osoa aztertzeke eta ebaluatzeke aukera ematen duten komunikazio- eta adierazpen-tresnak erabiltzea.

- a. Lan-taldeko kideek emandako informazioa sintetizatzen du.
- b. Teknologien marrazkiak, krokisak, bistak eta eskemak erabiltzen ditu.
- c. Lantegian lan-plan bat egiten du, segurtasun-arauei erreparatuz, bereziki.
- d. Zenbait formatutako testu teknikoan esanahia azaltzen du, bai eta haien lexiko espezifikoa ere.

- e. Objektuak eskalan adierazten ditu, bista eta perspektiba normalizatuz.
- f. Egoki erabiltzen ditu tresna ofimatikoak, simulaziokoak eta ordenagailuz lagundutakoak.
- g. Software egokia erabiltzen du pieza eta objektu soilak diseinatzeko.
- h. Ahoz adierazten ditu bere lanaren emaitzak eta erabakiak asertibitatez adierazten ditu.
- i. Programa bateko lineak dokumentatzen ditu, haien funtzionalitatea adieraziz.

7. Lanerako plan batean ezarrita dauden eragiketa teknikoak egitea, eta baliabide materialak eta antolakuntzakoak irizpide egokiz erabiltzea (ekonomia, segurtasuna eta ingurumena errespetatzea) eta lan-inguruko baldintzak aintzat hartuz.

- a. Konponbidea eraikitzen du eta hark egoki erantzuteko beharrezko doikuntzak egiten ditu.
- b. Segurtasun- eta higiene-neurriak ezartzen ditu lan guzti-guztiak egitean.
- c. Objektu bat ekoizteko prozesuari lotutako dokumentazio teknikoak interpretatzen du.
- d. Egoki erabiltzen ditu erremintak, makinak eta tresnak (ordenagailua barne) dagokien eragiketan.
- e. Baliabideak probetxuari eta ingurumenarekiko errespetuari begiratuta erabiltzen ditu.
- f. Lantzen ari den egoeraren antzekoetan lortutako ezagutza aplikatzen du.
- g. Emaitza partzial desegokien aurrean ez du etsitzen, eta egin beharreko eragiketak aldatzen ditu, beharrezkoa bada.
- h. Bere jarduera erregulatzen du eta lortu beharreko helburura bideratzen du.

8. Multzo bat eraikitzean zenbait material erabiltzea, eta zergatik aukeratu duen arrazoitzea.

- a. Produktuak egiteko erabiltzen diren ohiko materialak eta haien propietate mekanikoak lotzen ditu.
- b. Materialen propietateak eta egin beharreko objektuen funtzionaltasuna lotzen ditu.
- c. Egiturak osatzen dituzten elementuak erabiltzen ditu.
- d. Materialak ongi aprobetxatzen ditu.
- e. Material egokiak erabiliz lortzen den akabera eta aurkezpena balioesten du.

9. Muntaiak egitea, zenbait teknologiatan oinarrituta.

- a. Objektu edo sistema bat egoki dimentsionatzen du.
- b. Makina edo sistema baten egituran txertatutako eragile mekanikoak maneiatzen ditu.
- c. Oinarrizko zirkuitu elektrikoak montatzen ditu
- d. Kontrol-sistema batean, sarrera-, prozesu- eta irteera-elementuak bereizten ditu.
- e. Segurtasun- eta higiene-arauak ezartzen ditu muntaia-prozesuetan.
- f. Egiten ari denaren erantzuna aurrez aurre du.
- g. Eraikitako tramankulu eta prozesuaren ebaluazioa, frogak egiten ditu

10. Egindako lana ebaluatzea, prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, eta jatorrizko diseinuarekiko desbideratzeak hauteman eta dagozkion zuzenketak egitea.

- a. Prozesua eta emaitza aztertzen ditu, eta zer hobetu daitekeen jasotzen du.
- b. Taldean, jatorrizko diseinuak behar dituen zuzenketak egiten ditu eta egindako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua formulatzen du.
- c. Objektu edo sistema tekniko bat ekoizteak, erabiltzeak eta botatzeak ingurumenean eta pertsonen ongizatean

	<p>dakartzan eragin onak eta txarrak aztertzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none">d. Egindako konponbideak egoki funtzionatzen duela egiaztatzen du.e. Zer hobetu daitekeen ikusten du, geroragoko proposamenetan aplikatzeko.f. Bere jarduera eta taldearena ebaluatzen du.g. Beste talde batzuen lanaren jendaurreko aurkezpenak ebaluatzen ditu.h. Dokumentu batean jasotzen du, laburbilduta, esperientzian egindakoa eta hartan ikasitakoa.i. Egindako lana txukun eta garbi aurkezten die gainerako ikaskideei.j. Aintzat hartzen du nork bere kasa edo taldean problema teknologiko bati prozesuan sortutako zailtasunak gainditu ondoren konponbidea emateak dakarren gogobetetasuna
--	---

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. KONTSUMO ELEKTRIKOA. IKASTETXEKO ESPAZIO ZEHATZ BATZUETAN ETA ETXEKO ESPAZIOETAN POTENTZIA KONTSUMO MAXIMOA KALKULATU ETA HORTIK ABIATUTA KONTSUMOP ETA KONTRATO EGOKI BAT IZATEKO EGOERA AZTERTZEA DA ARAZO EGOERA HONEN EGITEKOA/**

ETXEKO ZIRKUITU ELEKTRIKO SINPLEEN PROIEKTUAREN BARRUKO ARAZO EGOERA BAT DA. HAIN ZUZEN ETXEKO ARGIZKUITU EZBERDINAK ERAIKITZEA ETA DAGOKION NEURKETAK EGITEA DA PROIEKTUAREN XEDEA, HORTIK ABIATUTA UNE BATETAN INDAR ELEKTRIKOAREN FAKTURAK AZTERTZEN DITUGU ETA JARRAIAN ESKOLAKO EREMU BATZUEN AZTERKETA EGIN ETA FAKTURA AURREZTEKO PROPOSAMENEZ OSATUTAKO TXOSTEN BAT EGITEN DA. ZEHAZTASUNAK ARAZO EGOERAREN DOKUMENTUAN IKUSI.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKI KOMUNAK

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- a. Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, berreskuratzea eta konpartitzea.
- b. Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- c. Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), eta azaltzea (deskribatzea, laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.), baliabide digitalak erabiliz.
- d. Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- e. Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- f. Ideien, lanen eta proiektuen bideragarritasuna planifikatzea eta aztertzea.
- g. Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- h. Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- i. Ikasitakoaren transferentzia egitea, eta ikaskuntzak estrategikoki erabiltzea.
- j. Lortutako emaitzak modu eraginkorrean jakinaraztea, bitarteko digitalak erabiliz.
- k. Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea).
- l. Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea, bai benetako inguruneetan bai ingurune birtualetan. Erantzukizunak hartzea eta aniztasunaren balioa aintzat hartzea.
- m. Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- n. Gatazkak kudeatzea. Elkarrizketaren eta negoziazioaren balioa.
- o. Norberaren gorputza erregulatzea.
- p. Norberaren emozioak erregulatzea.
- q. Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- r. Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- s. Norberaren jokabide morala erregulatzea.

t. Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea

1. Ebaluazioa: Esplorazio eta komunikazio teknikoa.

1. UNITATEA: Marrazketa teknikoa komunikazio grafikoa.

- Krokisak. Objektu errealeen krokisak.
- Bistak
- Planoak
- Marrazketa teknikoaren oinarritzko arauak.
- Normalizazioa. Akotazio arauak.
- Eskala.

2. Ebaluazioa: Energia

2. UNITATEA: Energi iturriak

- Energia iturri berriztagarriak
- Energia iturri ez berriztagarriak
- Zenbait iturritan (Interneten barne) lortutako informazioa baloratzea.
- Teknologia ekonomia, kulturaren eta gizartearen garapenari egindako ekarpenak.
- Teknologia eta ingurumena. Garapen iraunkorreko ohiturak hartzea. Energia eraginkortasuna.
- Teknologia gizakiaren beharren erantzun moduan. Objektuen eta tekniken bilakaera, zientziaren, teknologiaren eta gizartearen garapenarekin lotuta.

3. UNITATEA: Zirkuitu elektrikoak

- Atomoaren egitura. Elektroiak.
- Material eroale isolatzaileak
- Korrante elektrikoak
- Zirkuitu elektrikoak
- Osagai elektrikoaren familiak
- Eskema elektrikoak. Elementuen ikurrak.
- Korrante elektrikoaren noranzkoa: benetazkoa eta konbentzionala
- Magnitude elektrikoak.
- Ohmen legea. Ohmen legearen ariketak.
- Maniobra elementuak (etengailua, sakatzailea, komutagailua)
- Hargailuen konexioa (serie eta paraleloa)
- Polimetroa, (Intentsitatea (A), Voltioak (V) eta Erresistentzia (Ohmioak))

3. Ebaluazioa: Mekanika

4. UNITATEA: Mekanika

- Makinak eta mekanismoak
- Txirrikak
- Palankak
- Engranajeak

- Katearen bidezko transmisioa

Coronavirusa eta honek dakarren ziurgabetasuna dela eta, aurtengo ikasturtean proiektu motak aldaketak jasan ditzakete.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Metodologiaren ardatza ikaslea eta ikasketa-prozesua dira; metodologia aktiboa da, eta ez transmitzailea.

Problema ebazteko metodologia erabiliko da. Proiektu-metodoa bezala ezagutzen dena.

Teknologian.

Metodo honekin ebaluazio bakoitzean lantzen diren edukiak proiektu nagusi baten inguruan planteatzen dira eta talde txikien lan koordinatuan oinarritzen da. Besteak beste metodo honekin irakasleak erronka bat proposatu ondoren ikasleek hurrengo faseak burutu beharko dituzte: erronka analizatu – informazioa jaso bide iturri ezberdinetatik (irakaslea, dokumentazioa idatziak, web-guneak) - irtenbide bat bateratu eta diseinatu taldekideen artean - lan prozesua erabaki – irtenbidea eraiki – emaitzaren balorazio bat egin prozesu guztia azaltzen duen txosten baten– gelakideen aurrean egindako lana aurkeztu eta defendatu. Beraz kompetentziak era aktiboan landuko dituzte ikasten duten guztia praktikan jarri egoera konkretu baten helburu zehatz bat lortzeko asmoarekin.

Azalpenak emateko baliabide digitalak ere erabiliko dira; gelako arbela eta dispositiboak.

Google appseko baliabideak eta dispositiboak erabiliko dituzte. Galdetegiak era informatikoan ere egingo dira.

Sitesean osatutako euren portfolio pertsonala garatu eta landu beharko dute

Internetan, bai lanak egiteko zein animazio didaktikoak ikusteko.

Kontsultarako eta informazioa era autonomoan erabiltzeko teknologiako liburutegi bat dugu gela barruan.

ANIZTASUNARI ARRETA

- Aniztasunari arretea eginez, errefortzuko eta zabaltze ariketak proposatuko dira.

JOKABIDE DESEGOKIEN ONDORIOAK

Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desegokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.

Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desegokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen kompetentzia horiek.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Azterketak: ebaluazio irizpide gehienak zein neurritan lortu dituzten egiaztatzeko. • Ikaslearen koadernoak: ordenagailuan egiten ez diren lanak jasotzeko. Bertan ebaluaketan zehar egindako ariketa guztiak eduki behar ditu eta notarako diren lanak ere. Ariketa gehigarriak baldin badaude hauek ere erantsita eduki behar du. • Lanak: ikasleak notarako diren lanak entregatuko dizkio irakasleari. • Classroom: ordenagailuz egiten diren lanak jaso eta entregatzeko. • Proiektua: taldean eraikitako prototipoa aurkeztu behar dute klasean (ahoz) eta idatziz txostenaren lana entregatu. Ikasle bakoitzak bere ebaluazioa izango du. • Eguneroko lana ikasgelan eta etxerako lana: Eguneroko lana ikasgelan eta etxerako lana. Honako alderdi hauek aztertuko dira nagusiki: etxeko lanak, ikasgelako lana, materiala ekartzea, interesa, motibazioa, lan-ohiturak, arreta, parte-hartzea, ahozko eta idatzizko mezuak ulertzeko zailtasuna, ebazteko tekniken aplikazioa ... • Ikasleen auto-ebaluazioa (banakakoa edo taldekoa) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Azterketen batez bestekoa ebaluaketeko notaren %40a izango da. Azterketen batez bestekoa egin ahal izateko azterketa bakoitzean 3 puntu baino gehiago lortu beharko dira. ▪ Lanak %40a izango dira. Lanen nota kalkulatzeko ebaluaketan entregatutako lanen bataz bestekoa egingo da. Proiektuko txostenaren lana entregatzen duten ebaluaketetan txostenak notaren %70eko pisua izango du eta gainerako lanak badaude %30eko pisua izango dute. Lanak epez kanpo entregatzen dituenak edo bukatu gabe daudenak gehienez 5 puntu edukiko du lan horretan eta entregatzen ez dituenak edo egin gabe daudenak 0 puntu. ▪ Lanaren aprobetxamendua % 20a izango da. Edukietako bat betetzen ez den bakoitzean notaren %10a kenduko zaio ikasleari. <p>OHARRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ohiko deialdiko nota ebaluaketa bakoitzeko noten batez bestekoa izango da.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Proposatutako proiektuaren eta prozesuaren egokitasuna aztertuko da. Horretarako kontuan hartuko dira irakasleak ebaluazioan eta proiektuan zehar hartu izan dituen ohar eta erabakiak. Iruzkinak, ikasleengandik jasotako balorazioak eta ikasleek egin dituzten lanak. Azterketa honen ondoren aldaketak eta hobekuntzak planteatuko dira hurrengo ikasturterako eta bigarren ebaluaziorako ere.

Gutxienez ondoko puntuak izango dira aztergai:

- Talde txikien egitura eta antolamendua
- Planteatu den proiektuaren egokitasuna
- Erabili diren baliabideen eta jardueren egokitasuna
- Prozesuaren urratsak
- Planteatutako lanak eta ikasleek egindakoa

Proiektuaren faseak eta urrats bakoitzean agindakoa talde bakoitzaren egoera aztertuko da eta ondoren hala erabaki ezker, talde bakoitzari proiektuaren baldintzak egokituko zaizkio.

Gelako aniztasuna kontuan hartuko da ebaluatzerakoan.

BERRESKURAPEN SISTEMA:

1º ETA 2º EBALUAKETAKO BERRESKUPERAKETA:

Ebaluaketa errekupeatzeko jarraian agertzen diren atal edo atalak gainditu beharko ditu:

- Azterketa: ikasleak azterketa teoriko bat gainditu beharko du. Gainditzeko gutxieneko nota 5 izango da errekupeaketan. Irakasleak komenigarria ikusten badu, azterketaren orde lan bat egitea erabaki dezake.
- Lanen aurkezpena: entregatu gabe dituen lanak entregatu beharko ditu adierazitako epe berrian.

3º EBALUAKETAKO BERRESKUPERAKETA:

- Ebaluaketa honek ez du berreskupeapenik.

KURTZO AMAIERARAKO OHIKO AZTERKETA:

Ohiko azterketa mota bi daude:

- Ebaluaketa bat berreskupeatzeko: ebaluaketa horri dagokion azterketa egingo du, gutxienez 5 bateko nota izan beharko du. Irakasleak komenigarria ikusten badu, azterketaren orde lan bat egitea erabaki dezake.
- Ebaluaketa bat baino gehiago berreskupeatzeko: ikasle batek kurtsoan zehar bi edota hiru ebaluaketak baditu berreskupeatu gabe, kurtso osoari dagokion azterketa bat

gingo du eta gutxienez 5 bat atera beharko duelarik. Irakasleak komenigarria ikusten badu, azterketaren ordeztan lan bat egitea erabaki dezake.

KURTSO AMAIERARAKO EZ-OHIKO AZTERKETA:

- Ez-ohiko azterketa: ikasleak ikasturte osoan azterketa bat egin beharko du, gutxienezko nota 5 izango delarik. Irakasleak komenigarria ikusten badu, azterketaren ordeztan lan bat egitea erabaki dezake.

PENDIENTEEN BERRESKURAPEN SISTEMA

Informatika-teknologia mintegiak, ikasgaia gaituz gabe dutenentzat, berreskurapen sistema bat definitu du. Dokumentu hori, ikastetxeko dokumentazioan, pendienteen atalean, kontsulta dezake interesatua dagoen pertsona orok. Urriaren hasieran, informatika-teknologia pendiente duten ikasleekin batera lan egiten da, gaituzteko mekanismoak azalduz.

OHARRAK / OBSERVACIONES

--